

Asociacion Esperientzi Ikasleohien Kultur Elkarte "Eske" estatutuak

2019 AZAROAK

LEHEN ATALA

IZENDAPENA

1. Art

ASOCIACION ESPERIENTZI IKASLEOHIEN KULTUR ELKARTEA "ESKE" – ASOCIACION CULTURAL DE ALUMNOS/AS DE LAS AULAS DE LA EXPERIENCIA "ACEX" DE LA UPV/EHU elkarteak, Donostiakoa berau, AS/G/09927/2002 registro zenbakia du eta 2002ko uztailaren 4an erroldatu zen. Honako estatutu hauek Euskadiko Elkarteek ekainaren 22ko 7/2007 legearen eta Elkarte Eskubidearen arauak den martxoaren 22ko 1/2002 Lge Organikoaren arabera, zein Euskadiko Autonomia Estatuaren 9 eta 10.13 artikuluen arabera osatu dira.

Aipatu legeen baitan, elkarteak Estatutu hauen arabera -beti ere legediaren aurkakoak izan ezean- eta bere Gobernu Organoek harturiko akordioaren arabera -legeen edota Estatuaren aurkakoak ez badira- bideratuko da. Baita osagarri moduan Eusko Jaurlaritzak onarturiko araudi osagarrien arabera ere.

HELBURUAK

2. Art

Elkarteak osatzearen helburua 55 urtetik gorakoek beste belaunaldiekin batera gizarte eta kultura garapenean esku hartzeko duten grina asetzea da.

Helburu horiek osatzeko, lege baldintza guztien baitan, jarduerak hauek erabiliko dira, besteak beste:

1. Dagozkion kultura edota ikerkuntza jarduerak
2. Antzeko ezaugarriko Elkarteekin koordinatzea, estatutukoak zein nazioartekoak izan, batez ere parte hartzen ez den sareekin elkarlana egiteko.
3. Mintegi, Jardunaldi eta Trukaketetan parte hartzea.

Aurreko jardueretan ez ezik, hauetan ere aritu ahalko da Elkartearen helburuei ekiteko:

- Edozelako ekonomia jarduerak garatzea, bere helburuak lortzeko edo horren aldeko baliabideak erdiesteko.
- Edozelako eta edozein titulutako ondasunak jabetzea, eta edozein generotako akto eta kontratuak egitea.

EGOITZA

3. Art

Elkartearen egoitza nagusia Donostian dago, Aieteko Pasalekua 85ean, Topalekua eraikinean, 20009 Posta Kodea.

Elkarteak EAEn baitan egoitza gehiago izan ahalko ditu bere Batzar Orokorrek hala erabakiz gero.

JARDUN EREMUA

4. Art

Elkartearen jardun eremua nagusiki Euskadiko Autonomia Erkidegoa izango da.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA**5. Art**

Elkaratea epe iraunkorrerako osatu da eta bertan behera geratzea Ez-Ohiko Batzar Orokorrak hala erabakita edo Legeek hala ezarritako arrazoiak direla medio izango da.

Elkartearen barne antolaketa eta funtzionamendua demokratikoak izango dira, aniztasuna aintzat hartuta. Zuzenbide osoz deusezko erabakia izango da elkartearen ezaugarri hau aintzat hartzen ez duen edozein itun, estatutu xedapen edo akordio.

BIGARREN ATALA**GOBERNU ETA ADMINISTRAZIOA ORGANOA****6. Art**

Elkartearen Gobernu eta Kudeaketa honako bi organoen artean gauzatuko da:

- Bazkideen Batzar Orokorra, goren mailako organoa.
- Zuzendaritza-Batzordea, jardun arrunteko organoa.

BATZAR OROKORRA**7. Art**

Bazkide guztiek osatzen dute Batzar Orokorra eta euren bordondatea islatzeko eta gauzatzeko goren mailako organoa da. Horretarako, hauek daude bere esku:

1. Elkartearen jarduera plan orokorra onartzea.
2. Urteko kontuak eta hurrengo urteko aurrekontuak aztertzea eta onartzea.
3. Zuzendaritza-Batzordearen kudeaketa onartzea.
4. Elkaratea bertan behera uztea.
5. Presidentea, idazkaria, diruzaina eta, hala egotea onartuko balitz, gobernu organoen beste edozein kide aukeratzea, eta organoen horiek gainbegiratzea eta kontrolatzea.
6. Ondasun higiezinaren jabetzea edo besteretzeta onartzea.
7. Badagokio, organo kideen lana saritzeko akordioa.
8. Ohiko zein ez-ohiko kuotak ezartzea, nahiz eta Batzar Orokorrak gaitasun hau beste gobernu organoari esleitu ahal dion, berariaz hala adostuz gero.
9. Bazkideak elkartetik ateratzeko akordio hartzea.
10. Beste organo sozialei ez esleituriko edozein eskumen.

8. Art

Batzar Orokorrek ohiko zein ez-ohiko saioak izango ditu.

9. Art

Batzar Orokorren ohiko saioa urtean behin gutxienez deitu beharko da, urte naturalaren lehen bi-hilabetekoan, 7. artikuluko 1,2 eta 3 puntuak gauzatzeko.

10. Art

Batzar Orokorra ez-ohiko deialdian bilduko da Zuzendaritza-Batzordeak hala deituta, bai bere ekimenez, bai bazkideen %33k hala eskatuta, batzarraren zioa eta xedea garbi adierazita, besteak beste halako gaiak aztertzeko eta euren gaineko erabakiak hartzeko:

- a.- Estatutu moldaketak.
- b.- Elkartearen bertan behera uztea.

11. Art

Batzar Orokorren deialdiak idatziz egingo dira, euren kokalekua, eguna eta orduarekin batera gai-ordena eta landuko diren gaiak adierazita. Deialdia eta batzarraren egunaren lehen deialdiaren artean 15 egun gutxienez pasa beharko dira. Aukera dago, deialdi horretan bertan, hala badagokio, Batzarraren bigarren deialdia egiteko, beti ere lehenengotik bigarrenean ordu erdi baino gehiagoko aldea egonik.

Batzar Orokorrek, ohikoak zein ez-ohikoak, lege osatutzat hartuko dira lehen deialdian bazkideen herenak agertu badira edo bigarren deialdian bozka-eskubidea dutenen edozein portzentaia agertuta ere.

12. Art

Batzar Orokorren erabakiak gehiengo sinplez hartuko dira, ordezkaturiko edo bertaraturiko pertsonen baiezko bozkek ezezkoak baino gehiago badira.

Denarekin, gehiengo kualifikatua beharko da, hots, baiezko bozkek egoki emandako bozken erdia baino gehiago izatea, honako akordioetarako:

- Elkartearen bertan behera uztea.
- Estatutu moldaketak.
- Ondasunak eskuratzea edo besteratztea.
- Ordezkaritza organo kideen lana saritzea.

13. Art

Bazkideek euren Batzar Orokorrerako ordezkariak beste bazkide bati eman ahalko diote. Ordezkaritza hori idatziz emango da, eta Batzar Orokorren idazkariaren esku egon beharko da Batzarra hasi baino ordu erdi lehenago behintzat, Elkarteak egoitza duen hiritik at bizi diren bazkideek postaz bidali ahalko dute ordezkariak hori bermatzen duen agiria.

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

14. Art

Zuzendaritza-Batzordea da Elkartearen interesak – Batzar Orokorrak emandako irizpideen baitan- kudeatzen eta ordezkatzeko dituen ordezkari organoa.

Bazkideak besterik ezingo dira organo horretako kide izan.

Zuzendaritza-Batzordea kide hauek osatuko dute:

- Presidente.
- Presidente-ordea.
- Idazkaria.
- Diruzaina.
- Kargu gabeko kideak, lau baino gutxiago ez eta sei baino gehiago ere ez.

Hilean behin gutxienez elkartu beharko dute, gizarte jardunaren ondorenak hala eskatzen badu behintzat.

15. Art

Zuzendaritza-Batzordeko bileretara horretarako taxuzko arrazoirik gabe hiru aldiz jarraian ala orotara lau aldiz kale egiteak kargu gabetzea ekarriko du.

16. Art

Batzar Orokorrak hautatuko ditu Zuzendaritza-Batzordea osatzen duten kideak **eta izendapen horiek bi urterako izango dira, ez badu Batzarrak berak lehenago bertan behera uzten, eta berriz izendatua izateko aukera egongo da. Urtero kideen erdiak -%50- berriztuko dira.**

17. Art

Zuzendaritza-Batzordeko kide izateko nahitaezkoak dira:

- Adin nagusikoa izatea, eskubide zibilen jabetza osoa izatea eta legediak ezarritako bateraezintasun egoeraren batean ez egotea.
- Estatutuek ezarritako bidetik hautatua izan izana.
- Elkarteko kide izatea

18. Art

Zuzendaritza-Batzordeko kide izateko hasiera emango zaio, behin Batzar Orokorrak hautatu ostean kargua onartu edo hartutakoan.

Batzar Orokorra burujabe izango da, hala badagokio, Zuzendaritza-Batzordeko kideei bidaia-sariak, dietak edo bestelako gastuak ordaintzeko.

19. Art

Bazkide arruntak diren Zuzendaritza-Batzordeko kideen mandatua honako kasuetan bukatuko da:

1. Izendatutako epea amaitutakoan.
2. Dimisioagatik.
3. Ohiko bazkide izateari utziz gero edo kargurako ez-egokitasun egoeran sartuz gero.
4. Batzar Orokorrek kargua uzteko erabakitakoan.
5. Zendutakoan.

1. etetze-baldintza gauzatzen denetan, Zuzendaritza-Batzordeko kideek behin-behineko arduraren jarraituko dute karguak berriz aukeratuko dituen lehen Batzar Orokorra egin arte.

2,3,4 edo 5. kasuetan, Zuzendaritza-Batzordeak berak aukeratuko du norbait behin-behineko harik eta Batzar Orokorrean pertsona horren berrespena edo kargugabetzea gauzatzen den arte, eta, hala balegokio, pertsona berria aukeratuko luke.

Zuzendaritza-Batzordearen edozein aldaketaren berri emango zaio Elkartearen Erroldari.

20. Art

Zuzendaritza-Batzordeak honako funtzioak ditu:

- Elkartearen eguneroko kudeaketa zuzentzea, Batzar Orokorren irizpideak kontuan hartuta eta beti ere haren ardurapean.
- Elkartearen ekintzak programatzea.
- Batzar Orokorren urteko aurrekontua eta aurreko urteko balantzea aurkeztea, horiek onartzeko.
- Batzar Orokorren gai-ordena osatzea eta ohiko zein ez-ohiko deialdiak egitea.
- Bazkideek egindako proposamen edo iradokizunei arreta jartzea eta dagozkion neurriak hartzea.
- Estatutu hauen nondik norakoak interpretatzea eta bere hutsuneak betetzea, beti ere elkartearen inguruko indarreko araudiari jarraiki.
- Batzar Orokorrek esleitzen dizkion eskumenak gauzatzea, beti ere ez badira azken horrek esleitu ezinezkoak.

21. Art

Presidentziak deituta egingo dira Zuzendaritza-Batzordearen bilerak, Presidentziaren ekimenez edota beste edozein kidek eskatuta. Presidente izango da bileraren buru, edo bera egon ezean, Presidente-ordea (halakorik balego), edota bestela, adinez nagusia den batzordekidea izango da buru.

Zuzendaritza-Batzordeak erabakitakoak balekoak izateko bertaraturiko pertsonen gehiengoak onartuko beharko ditu eta kideen erdiak gutxienez egon beharko dira. Berdinketarik egonez gero, Presidentearen boza erabakigarria izango da.

Idazkariak jardun liburuan bilduko ditu izandako bileren aktak.

BATZORDEKO KIDEAK**PRESIDENTEA****22. Art**

Elkartearen Presidenteak bere gain izango du elkartearen ordezkaritza legearen aurrean eta Zuzendaritza-Batzordearen eta Batzar Orokorren erabakiak gauzatu beharko ditu, bi organo horien buru izanik.

23. Art

Presidenteari dagozkio honako ardurak:

1. Zuzendaritza-Batzordearen eta Batzar Orokorraren bilerak deitzea eta amaitutzat ematea, bertako eztabaidak eta erabaki hartzeak zuzentzea, eta berdinketa kasuetan kalitatezko bozarekin berdinketak desorekatzea.
2. Zuzendaritza-Batzordeari jarduera plana aurkeztea eta bertako lanak sustatzea eta zuzentzea.
3. Egoki onarturiko ordainketak agintzea.
4. Presaz erabakitzekeo kontuak konpontzea, hurrengo Zuzendaritza-Batzordean horren berri emateko.
5. Batzar Orokorrak esleitzea erabakitzen duen eskumenak betetzea, esleiezinak diren eskumenak izan

PRESIDENTEORDEA**24. Art**

Presidenteordeak Presidenteari bere funtzioetan lagunduko dio eta azken horrek behin-behineko bere ardurak aurrera atera ezin dituenetan ordezkatu egingo du. Halaber, Presidentziak esleitzen dizkion ardurak ere bere esku izango dira.

IDAZKARIA**25. Art**

Idazkariari dagokio ohiko bazkide edo laguntzaile izateko eskaerak jasotzea eta tramitatzea, Bazkideen Errolda Liburua eta fitxategia kudeatzea eta Akta Liburua gordetzea eta idaztea.

Halaber, Elkartearen legegian ezarritakoak egoki betetzen direla ikuskatuko du, Elkartearen dokumentazio ofiziala gordez, Liburu eta artxibategien edukia bermatuz eta beharreko erakunde publikoei berri emanez Zuzendaritza-Batzordean edota egoitza sozialean aldaketak ematen direnetan.

DIRUZAINA**26. Art**

Diruzainak diru sarreren eta irteeren berri emango du, urteko irabazien eta gastuen aurrekontua zein aurreko urtearen balantzea osatuko ditu eta Zuzendaritza-Batzordeari aurkeztuko dizkio, gero horrek Batzar Orokorrari aurkez diezazkion.

HIRUGARREN ATALA**BAZKIDEAK: IRIZPIDEAK ETA ONARTZE ZEIN DESKIDETZEA PROZEDURAK**

27. Art.

Elkarteko kide izan daiteke horretarako borondatea duen eta irizpide hauek betetzen dituen oro:

1. Pertsona fisikoentzat, adin nagusikoa izatea, eta gizarte eskubideak gauzatzeko lege ezegokitasunik ez edukitzea, ezta bere gaitasuna mugatzen duen behin-betiko ebazpen judizialik ere.
2. Pertsona juridikoen kasuan, horretarako eskumena duen organoak hartutako erabakiaren kopia aurkeztuko dute, bertan bere elkartzeko borondatea azaldu beharko da eta euren ordean nor arituko den jaso.
3. EHUko Esperientzia Geletako ikasle ala ikasleohia izatea.

Elkartearen baitan, bazkide kategoriaz hauek izango dira:

- Ohiko bazkideak
- Ohorezko bazkidea, itzalagatik edota Elkartearen jardunari ekarpen txalogarria egiteagatik, hala izatea merezi dutenak. Euren izendapena edota kentzea Batzar Orokorrari besterik ez dagokio, Zuzendaritza Batzordeak proposatuta.
- Bazkide kolaboratzaileak Elkartea eta bere helburuak diruz babesten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak izango dira.

1 eta 2 saileko bazkideak ez daude onartze-irizpideko 1 saileko baldintzapean izango.

Pertsona juridikoen kasuan, bazkide egiteko hartutako akordioaren kopia erakutsi beharko dute, egoki eta dagokion organoan harturiko akordioa beratu, eta bertan elkarteko kide izateko borondatea eta euren izenean nor arituko den

28. Art

Ohiko Bazkide izan nahi duen pertsonak EHUko Esperientzia Geletan ikasle ala ikasleohi den ziurtagiria erakutsi beharko du.

BAZKIDE ETA IKASTAROLARIEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

29. Art

Bazkideetarako pertsona orok du eskubidea honakoak egiteko:

1. Elkartearen Legearen edo Estatutuen aurkakoak diren akordio edo jardunak inpugnatzea, salaketariak erabaki hori ezagutu duen ala ezagutzeko aukera izan duen unetik aurrerako 40 egun naturalen epean.
2. Elkartearen Gobernu Organokideak eta Elkartearen ordezkariak nork osatzen duen, kontuen egoeraren eta jardunaren garapenaren berri izatea.
3. Une oro ezagutzea, Elkartearen beste kideen nortasuna, diru sartu irtenen egoera, eta jardueraren garapenaren, beti ere pertsonen datu babesarako araudiek ezartzen dutenaren baitan.
4. Batzar Orokorrera deitu izatea, bertaratzea eta ahotsa eta boza izatea, horretarako beste kideengan ordezkariak delegatuta.
5. Estatu hauek diotenaren arabera, Elkartearen Gobernu Organoetan parte hartzea, aukeratzailerak eta aukeratuak izanda horietarako.
6. Bazkideen fitxategian azaldu, legediak ezarritako baldintzekin; eta, halakorik balego, Elkartearen irudia erabiltzea.
7. Estatuaren eta, halakorik balego, Barne Araudiaren ale bana edukitzea eta dauden organoetarako eskariak eta kexak azaltzea.
8. Ekitalde kolektiboetan parte hartzea, eta bazkideen erabilera komunerako baliabideak erabiltzea (egoitza, liburutegia eta abar).
9. Bere bazkide betebeharrak ez betetzeagatik bere aurkako disziplina-neurririk hartu aurretik, oinarrian diren arazoak ezagutzea eta idatziz bere bertsioa eman ahal izatea.
10. Edozein unetan bazkideetara etetea, betetzeke dauden konpromisuzkoak bertan behera geratu gabe.

30. Art

Bazkideen betebeharrak:

1. Elkartearen helburekin bat egitea eta beraiek gauzatzeko laguntzea.
2. Kuotak, derramak eta Estatuaren arabera bazkideei egokitu ahal zaizkion beste ekarpenak ordaintzea.
3. Estatuaren ager daitezkeen beste egin beharrak betetzea.
4. Elkartearen Gobernu Organoek egoki hartutako erabakiei men egin eta betetzea.

BAZKIDE IZAERA GALTZEA**31. Art.**

Bazkide izaera honako baldintzetan galduko da:

1. Heriotzagatik, edo, pertsona juridikoen kasuan bertan behera geratzeagatik.
2. Bere borondatez deskidetzea.
3. Zigorragatik baztertzea, hauetako bat ematen delako: Estatuaren edo egoki hartutako Batzar Orokorreratik edo Zuzendaritza-Batzordetik eratorritako betebeharren urratze larria, errepikatua eta berriazkoa.

ZIGOR ARAUDIA

32. Art

Elkarteko pertsona bazkideei zigorra jarri ahalko die Zuzendaritza-Batzordeak Estatuak edota Batzar Orokorraren eta Zuzendaritza-Batzordearen erabakiak behin eta berriro urratzeagatik.

Zigor hauek behin-behinean 15 egunetik hilabete baterako epean eskubideak galtzea zein behin betiko elkartetik ateratzea izan litezke.

Edozein zentzutan, Presidentziak ikerketa jarri ahalko du abian zigorgarriak izan daitezkeen jokaerak ondo aztertze aldera. Idazkaritzak jarriko ditu abian jarduera horiek, gero organo instruktore horrek Zuzendaritza-Batzordeari behar diren neurriak proposatzeko.

Zigor hauek jartzea Zuzendaritza-Batzordearen eskumena da, Idazkariaren parte hartzerik gabe (organo instruktorea baita) eta inplikaturiko pertsonaren audientzia burutu beharko da lehenago. Akordio hori beti ondo oinarritua izango da eta Batzar Orokorrerako helegitea aurkeztu ahalko zaio.

33. Art

Bazkideren bat Estatuaren edo egoki hartutako Batzar Orokorratik edo Zuzendaritza-Batzordetik eratorritako betebeharren urratze larria, errepikatua eta berariazkoagatik ustezko deskidetze egoera batean balego, Presidentziak Idazkaritzari aurretiazko ekintzekin hasteko agindu ahalko dio, deskidetzko expediente zigorleari

34. Art

Zigor edo deskidetze expedienteari ekinez gero, Idazkariak, jazotakoak aztertu ondoren, inplikaturiko pertsonari idatziz emango dio egozten zaizkion karguen berri. Kargu horiei hamabost egunen buruan erantzun ahalko zaie eta horiek igarota Zuzendaritza Batzordearen hurrengo gai-ordenean sartuko da, Batzordeak erabaki beharrekoa erabaki dezan, Idazkariaren bozkarik gabe, bera baita expedientearen instruktorea.

Deskidetze akordioa interesatuari helaraziko zaio, eta horrekin batera adieraziko zaio hurrengo Ez-Ohiko Batzar Orokorrerako helegitea aurkeztu ahalko duela. Hiru hilabetean halako Batzarrik emango ez balitz, bat deituko litzateke beren-beregi gai hau lantzeko. Bitartean, Zuzendaritza Batzordeak eskumena izango du adosteko bazkide eskubideak behin-behineko ezerezean gera daitezela, baita, hala balitz, Zuzendaritza-Batzordeko kide izateari utz diezaiola ere.

Deskidetze expedientearen aurkako helegitea Batzar Orokorrari helarazten bazaio, Idazkariak laburpena egingo du idatziz, Zuzendaritza-Batzordeak Batzarrean bertan inkulpatuaren idatziaren berri eman dezan eta jakin beharrekoak eman Batzar Orokorrak dagokion akordioa hartzeko.

35. Art

Deskidetze akordioa, beti ere motibatua, interesatuari helaraziko zaio, eta azken horrek bere eskubideen baitan Epaitegietara jotzea edukiko du, Legearen edo Estatuaren aurka egin dela iritziz gero.

36. Art

Elkartetik at geratzen denean, dela bere borondatez dela kanporatua izan delako, Elkartearekin betetzeke dituenak betetzeko eskatuko zaio.

ONDARE FUNDAZIONALA ETA AURREKONTU ERREJIMENA**37. Art.**

Elkartearen ondare fundazionala ZERO eurokoa izan zen.

38. Art

Elkarteak bere jarduerarako aurreikusitako ekonomia baliabideak honakoak izango dira:

- Sarrera kuotak.
- Adosturiko ohiko kuotak.
- Dagozkion ondasun eta eskubideen etekina, eta legeari jarraiki jaso ahalko dituen dirulaguntza, lagapen eta donazioak.
- Zuzendaritza Batzordeak, legearen baitan eta Estatutuetoako helburuei jarraiki, antolaturiko ekimenetan lortutako irabaziak.

Elkarte eta ekonomia jarduna urteroko izango da eta **urteko abenduaren 31n amaituko da.**

Elkarteak ekonomia jardueren bitartez lortutako irabaziak, zerbitzuen truke lortuak barne, bere helburuak asetzera besterik ezingo ditu bideratu, ezingo dira bazkideen edota senar-emazte zein bikotekideen edo familiakideen artean banatu, ezta pertsona fisiko edo irabazi asmoko pertsona fisikoei doan lagatu ere.

BOSGARREN ATALA**ESTATUAK MOLDATZEAZ****39. Art.**

Estatuen moldaketa helburu horrekin deituriko Ez-Ohiko Batzar Orokorrean besterik ez da gauzatuko. Zuzendaritza-Batzordeak hiru bazkidek osaturiko Ponentzia izendatuko du, moldaketa zirriborria egin dezan Zuzendaritza-Batzordeak emandako irizpideekin eta proiektua amaitzeko epea jarriko da.

40. Art

Behin moldaketa zirriborria dagokion epean idatzita, Presidenteak egingo den hurrengo Zuzendaritza-Batzordeko gai-ordenean txertatuko du eta bertan onartu egingo da, edo egokiago iritziz gero, Ponentziari atzera bidaliko dio berriz azter dezan.

Onartua izanez gero, Zuzendaritza-Batzordeak hurrengo Batzar Orokorreko gai-ordenean txertatuko da ala gai honetarako bat deituko du.

41. Art

Batzarraren deialdiarekin batera helaraziko da Estatu moldaketaren testua, bazkide orok aukera izan dezan egoki dituen zuzenketak bidaltzeko lldazkaritzara, gero honek Batzar Orokorrean beraien berri emateko, beti ere bilera aurretik 8 egun baino lehenago helarazi bazaizkio.

Zuzenketok bakarka ala taldeka bidali ahalko dira, idatziz eta testu berria proposatu beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzarrak estatutu moldaketarako akordioa hartuko du, nahiz eta kanpora begira ez den indarrean sartuko harik eta Elkartearen Errolda Orokorrean komunikatu arte.

SEIGARREN ATALA**ELKARTEA BERTAN BEHERA UZTEA ETA ONDARE SOZIALA HANDITZEA****42. Art.**

Honakoetan geratuko da Elkartearen bertan behera:

- Horretarako beren-beregi deituriko Ez-Ohiko Batzar Orokorrean kideek hala erabakita.
- Estatutuaren ezarritako epe edo balintzak gauzatuta.
- Beste elkarterekin elkartuta ala bere baitan sartuta.
- Legeak ezarritako gutxieneko bazkide kopurua lortu ezagatik.
- Elkartearen disolbatzera derrigortzen duen ebazpen judizial irmoaren eraginez.
- Helburu sozialak gauzatzeko ezintasunagatik.

43. Art

Elkartearen bertan behera geratuz gero, azken hori erabakitzen duen Ez-Ohiko Batzar Orokorrak Amaierarako Batzordea izendatu beharko du, Zuzendaritza-Batzordeko kideetatik sei hautatuta, geratzen diren ondasunak kudeatzeko.

Bazkide zein besteekiko betebeharrak kitatu ondoren, jabeagorik balego soberan, irabazi asmorik gabeko elkarte edo proiektuetara bideratuko da.

AZKEN XEDAPENA

Batzar Orokorrak eskumena du Barne Araudia onartzeko Estatu hauek gauzatu ahala izateko, beti ere bertan emandako irizpideak eraldatu barik.

Izp. Antxon Vega Fernández
Presidentea.

DATU BABESEA

1.- Zeinek du zure datu pertsonalak erabiltzearen ardura?

Donostian, 2002ko uztailaren 4an AS/G/09927/2002 kodearekin Euskadiko Elkartearen Erregistroan erroldaturiko ASOCIACION CULTURAL DE ALUMNOS/AS DE LAS AULAS DE LA EXPERIENCIA "ACEX" ESPERIENTZI IKASLEOHIEK KULTUR ELKARTEA "ESKE" DE LA UPV/EHU delakoak.

2.- Nola lortu ditugu zure datu pertsonalak?

ACEX/ESKEen bazkide edo ikastrolari izena eman duzunean eman dituzu zure datuak bazkide eta ikastrolari izateko ACX/ESKEk daukan fitxategian.

3.- Zer nolako datu pertsonalak erabiltzen ditugu?

Fitxategi honen baitan zauden bitartean, ACEX/ESKEk honako pertsonal izaerako datuak erabili ahalko ditu:

- Identifikazio eta harremanerako datuak (izen-abizenak, NA, adina, posta eta email helbideak eta telefono zenbakia).
- Datu ekonomikoak (Kontu korronteko datuak).

4.- Zein helbururekin erabiliko ditugu eman dizkiguzun datu pertsonalak?

- ACEX/ESKEk lehenetsuna emango dio e-posta bidezko komunikazioak bidaltzeari bazkideekin harremanetan jartzeko. Posible da ACEX/ESKEk, bere Zuzendaritza Batzordean, ohiko posta bidezko komunikazioak bertan behera uzteko akordioa hartzea.
- Kontu korronteko datuak bazkidearen urteroko kuota kobratzeko erabiliko ditugu.
- E-mailaren bidez, Elkarteak jasotako balizko eskaintza-iragarkiak berbidali ahalko dira, baldin eta aurretiaz Zuzendaritza Batzordeak hala erabakiko balu.
- Ikerketa estatistiko eta historikoak burutzea.

5.- Zein zilegitasunpean erabiliko ditu zure datuak ACEX/ESKEk?

Bazkide edo ikastrolari izateko ezarritako harremanak zilegitzen du, eta zeure eskubide eta betebeharrak jasota daude bazkide egin zarenean helarazi zaizkizun Elkartearen Estatutuetan.

6.- Nori pasako zaizkio zure datu pertsonak?

- Finantza-Entitateei urteroko kuoten ordainketa eta kobratzea egiteko.
- Beste bazkideei, euren arteko komunikazioak ahalbidetzeko, baldin eta Elkartearen Idazkaritzak hala onartuko balu.

7.- Zenbateko epean gordeko ditugu zeure datuak?

- Bazkideei dagokionean, ezaugarri horren epeari lotuko zaio erregistroa, bazkide izatea tramitatzea Idazkaritzari jakinarazi bezain laster.
- Ikastrolariei dagokionean, parte harturiko ikastaroa amaitu eta urtebetara ezabatuko dira datuak.

8.- Zein eskubide duzu datuok erabiltzeari dagokionean?

ACEX/ESKEk jakinarazten dizu eskubidea duzula zure datuak eskuratzeko eta zein erabaliara eman zaien jakiteko. Halaber, datuak okerrak direnean zuzentzeko edota, eskatu ziren helbururako jadanik egokiak ez direnean datuok ezabatzeko eskatzeko eskubidea duzu.

Eskubide hauek gauzatu ahal izateko, jarri kontaktuan ACEX/ESKEekin, Aiete Pasealekua 85, 20009 Donostia edo acex.eske@gmail.com emaillean, NAren edota nortasuna bermatzen duen agiri baten koplekin.

Izp. Antxon Vega Fernández
Presidentea.